



MOREDA ARABAKO TOKIKO EKINTZA PLANA 2011-2020



Ayuntamiento de Moreda de Álava
Moreda Arabako Udala



AURKIBIDEA

0. Laburpen Exekutiboa.....	2
1. Sarrera.....	4
1.1 Aurrekariak eta Aalborg-eko Konpromisoak	4
1.2 Lan- Metodologia.....	5
1.3 Helburuak	6
2. Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Plana.....	7
2.1 Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Planaren Egitura	7
2.2 Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Planaren Aurkezpena.....	8
3. Jarraipen Plana	18
3.1 Helburuak	18
3.2 Jarraipen Planaren Hedapena	18




0. LABURPEN EXEKUTIBOA

2009ko azaroa eta 2010eko maiatza bitartean herriko Jasangarritasun Diagnostikoa egin zen, eskualdeko bost udalerrri (Laguardia-Biasteri, Leza, Moreda Araba, Nabaridas eta Samaniego) barneratzen dituen Arabar Errioxa UDALTALDE 21 Proiektuaren barnean eta Arabako Foru Aldundiaren, IHOBEn eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Diagnostikotik abiatuta, Udaleko arlo desberdinen eta herritarren parte hartzearekin, Moreda Arabak dituen arazo eta ahultasun nagusiak identifikatu dira, baita sendotasunak eta aukera nagusiak ere.

Dokumentu honek analisiari erantzuna emango dioten helburuak eta ekintzak biltzen ditu eta herria garapen jasangarri baterantz abiatzea dute helburu. Moreda Arabako Tokiko Ekintza Planean egituratzen eta antolatzen dira helburu eta ekintza guzti hauek, Tokiko Agenda 21aren oinarri bezala.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plan honek dituen ildo estrategikoak honako hauek dira:

1. HERRIAN POPULAZIO EGONKORRA FINKATU BIZI-KALITATE ONAREKIN
2. GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIA ETA ANITZA SUSTATU
3. HERRIKO BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA ZAINDU, POPULAZIOA ASEBETEZ HIGIKORTASUNARI ETA AISIALDIARI DAGOKIONEZ
4. BALIABIDE NATURALAK BABESTU ETA MODU JASANGARRIAGO BATEAN ERABILI, ALDI BEREAN HONDAKINEN SORRERAK ERAGINDAKO INPAKTUA GUTXITUZ
5. UDALAREN ETA POPULAZIOAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETU ETA ERAGILE SOZIOEKONOMIKO GUZTIEN PARTAIDETZA SUSTATU MOREDA ARABAKO GARAPEN JASANGARRIEAN
6. UDAL ADMINISTRAZIOAREN PAPER EREDUGARRIA INDARTU ETA BERE INGURUMEN-KUDEAKETA HOBETU

Dokumentu honek Diagnostikotik Ekintza Planera pasatzeko egindako lanaren lehen aurkezpen bat du, bigarren zatia Ekintza Plana eta azken zatian honen Jarraipen Plana aurrera eramateko metodologia azaltzen da.



1. SARRERA

1.1 Aurrekariak eta Aalborg-eko Konpromisoak

2008an Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Arloak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurraldearen Antolamenduko Arloak IHOBEn bidez, hitzarmen bat sinatu zuten Arabako Lurralde Historikoko jasangarritasunaren sustapenean aurrera egiteko. Horretarako, beste batzuen artean, estrategia bat sortu zen Arabako Tokiko Agenda 21 prozesuen martxan jartzea eta funtzionamendua errazteko. Testuinguru honetan kokatzen da ARABAR ERRIOKA UDALTALDE 21.

Moreda Arabak 2009ko urriaren 5ean hasi zuen bere Tokiko Agenda 21aren prozesua ARABAR ERRIOKA UDALTALDE 21ari atxikituz eta 2009ko ekainaren 24an sinatu zuen Aalborg-eko Gutuna.

Gutun honen sinadurarekin Udalak hurrengo konpromezuak asumitzen ditu, hauei Aalborg-eko konpromisoak deritze eta Tokiko Agenda 21aren oinarria dira:

1. Gobernatzeko moduak: Erabakiak partaidetza demokratikoago baten bidez hartzeko prozedurak sustatzeko konpromisoa hartu dugu.
2. Jasangarritasunera bideratutako udal-kudeaketa: Kudeaketarako programa eraginkorrak egitera konprometitu gara, ebaluaketaren diseinua eta inplementazioa.
3. Bitarteko natural komunak: Baliabide naturalak babestu, gorde eta bermatzeko dugun ardura onartzerako konprometitu gara.
4. Kontsumo arduratsua eta bizimoduaren aukeraketa: Baliabideen erabilpen zuhur eta eraginkorra egiteko eta kontsumo eta produkzio jasangarria sustatzeko konpromisoa hartu dugu.
5. Hiri plangintza eta diseinua: Hirigintza-diseinu eta planifikazioan paper estrategikoa onartzerako konprometitu gara, eta ingurumen gaiak, sozialak, ekonomikoak, osasunari buruzkoak eta kulturalak guztion onurarako bideratzera.
6. Mugikortasun hobe eta trafikoaren murrizketa: Garraioaren, osasunaren eta ingurumenaren interdependentsia onartzen dugu, higikortasun jasangarrieko ereduak irmoki sustatzeko konprometitu gaude.



7. Osasunaren aldeko tokian tokiko ekintza: Gure biztanleriaren osasuna eta ongizatea babestu eta sustatzeko konpromisoa hartu dugu.
8. Tokian tokiko ekonomia bizia eta jasangarria: Ingurumena kaltetu gabe, lana sustatuko duen udal ekonomia bizia sortu eta bermatzera konprometitu gara.
9. Berdintasuna eta justizia soziala: Komunitate integratzaile eta solidarioak bermatzeko konpromisoa hartu dugu.
10. Tokian tokitik esparru globalera: Bakerako, justiziarako, berdintasunerako, garapen jasangarrierako eta klimaren babeserako dugun ardura onartzera konprometitu gara.

1.2 Lan-metodologia

Jasangarritasunerako Ekintza Plan hau Udaleko teknikari eta politikariek egindako lanaren emaitza da, Lezako herritarren partaidetzarekin.

Azterketa eta dokumentua egiteko erabili den metodologia hurrengoa izan da:

1. EKINTZA PLANAREN EGITURAKETA, diagnostikoaren emaitzen azterketaren ostean eta populazioaren ekarpenekin ildo estrategikoen, helburuen eta garatu beharreko ekintzen lehen eskema bat egiten da.
2. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA, garatu beharreko ekintzen definizio teknikoa.
3. EKINTZA PLANAREN ONARPENA.

Garatutako lanaren emaitza da Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plan honen dokumentua.



1.3 Helburuak

Garatutako metodologiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Gaur egungo herriko errealitatera eta kudeaketa-beharretara doitzen den Ekintza Plan bat egitea, kudeaketa-tresna eraginkorra izango dena udaleko zerbitzu teknikoentzat.
- Gogoeta estrategikoa egitea Ekintza Plana Formulatzera, Udaleko kargu politikoentzat eredugarri diren helburu eta gertaera garrantzitsuekin.
- Barne-kudeaketarako mekanismoak egituratu eta dinamizatu teknikari desberdinen partaidetzarekin, Planaren ezarpen egokia eta zeharkakoa ahalbidetuko duena.
- Biztanleriaren eta tokiko eragileen partaidetzarako mekanismoak egituratu eta dinamizatu Planaren jarraipen eta sustapen prozesuan haien integrazioa errazteko.
- Udalaz gaineko baliabide ekonomikoen bilketa erraztuko duen Plana planteatu, horrela tokiko ekintzak burutzeko behar den inbertsioa berreskuratzea ahalbidetuko duena.
- Biztanleriaren komunikazioa eta informazioa eskuragarri jarriko dituen estrategia sustatu Planari garrantzi soziala eta politikoa emanez.
- 8 urteko iraunaldia izango duen Plana egin, epe honen bukaerarako lortu nahi den udalerriaren ikuspegia helburutzat hartuz, eta era berean arduradun politikoentzat planifikaziorako eta legealdien ebaluaziorako tresna eredugarria izango dena.
- Herriaren bilakaeraren aldizkako ebaluaketa egiteko tresnak dituen Plana definitu, jasangarritasuna eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.
- Beste Plan edo udal-estrategiak barneratu ditzakeen esparrua sortu, Tokiko Agenda 21arekin duten erlazioagatik, estrategia horiek burutzeko baliabide faltagatik edo burujabetza politikoagatik, Tokiko Agenda 21aren prozesuan integratu daitezkeenak.



2. JASANGARRITASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA


2.1 Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Planaren egitura

Dokumentu honek Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana osatzen du eta analisi honi erantzuna emango dioten helburuak eta ekintzak biltzen ditu, helburu nagusia herria garapen jasangarri baterantz abiatzea delarik.

2. irudian agertzen den bezala, Ekintza Plana horrela egituratzen da:

- Ildo Estrategikoak: planaren ezarpenarekin lortu nahi diren helburu estrategikoak
- Programak: Ildo Estrategiko bakoitza betetzeko helburu eraginkorrak
- Ekintzak.

Gainera, udalerriko ikuspegia eta planaren ezarpenarekin batera bete nahi diren helmuga edo helburu kuantitatibo batzuk ere sartu dira.



Ekintza Planeko ekintza bakoitza herriko garapen jasangarria lortzeko bideratuta egongo da, horregatik zuzenki erlazionatuta egongo da Aalborg-eko konpromiso bat edo gehiagorekin (Udalak hartutakoak) hauen lorpena ahalbidetzeko.

Modu honetan, ekintza bakoitza horrelako fitxa batean bilduta egongo da:

Ildo Estrategikoa: Ekintzak zein Ildo Estrategikori dagokion

Programa	Ekintza	Deskribapena	Epea	Lehen- tasuna	Arduraduna	Aalborg-eko konpromisoa
Ekintzak zein programari dagokion	Ekintzaren izenburua	Ekintzaren karakterizazio zehatza, bere ezarpena eta jarraipena ahalbidetuko duen oinarrizko informazioarekin	Ekintzaren ezarpena bukatzeko epea: Laburra (<3 urte) Ertaina (3-4- urte) Luzea (>4 urte)	Altua Ertaina Baxua	Ekintzaren ezarpenean inplikaturako entitate nagusia	Ekintzak zein Aalborg-eko konpromezuri laguntzen dion

2.2 Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Planaren aurkezpena

Hemen biltzen den dokumentua Moreda Arabako Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Plana da eta azterketa honi erantzuteko beharrezkoak diren helburuak eta ekintzak barneratzen ditu, herriaren garapen jasangarritasunerantz bideratzeko helburua dutenak.



1 ILDOA. HERRIAN POPULAZIO EGONKORRA FINKATU BIZI-KALITATE ONAREKIN

HELMU- GAK

- 35 urtetik beherako populazioa %5ean handitu.
- Udalak antolatutako kirol, kultur eta aisialdi ekintzetan partaidetza %10ean handitu.
- Herriko populazio euskalduna %5ean areagotu.

1.1 PROGRAMA

MOREDA ARABAKO
POPULAZIOA MANTENDU
ZERBITZUAK FINKATUZ
ETA POPULAZIO
GAZTEARENTZAKO
ERAKARGARRI BILAKATUZ

1.1.1 Egungo egun-zentroetara joatea erraztu garraio-sistema eraginkor baten bidez.

1.1.2 Populazio gazteari zuzendutako espazio bat sortu.

1.1.3 Ekintzen agenda bat eta herriko abantaila eta aukeren triptiko bat egin Moreda Arabako populazioari eta inguruko herriei komunikatzeko, tokiko erakargarritasunak hedatuz.

1.1.4 Herrian jaiotzak sustatzeko laguntzak eskaini.

1.2 PROGRAMA

AUZOKOEN ARTEKO
BIZIKIDETZA ETA ERRESPETUA
SUSTATU

1.2.1 Udalaz gaineko hurrengo Planen ezarpena eta jarraipena egin: Arabako Foru Aldundiko Etorkinak Integratzeko Plana, Eskualdeko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana, Eusko Jaurlaritzako Drogazaletasun Plana eta Gazte Plana.

1.2.2 Etorkinen artean Auzoko Berrientzako Gida eta Herriko ekintzen agenda hedatu.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



1.3 PROGRAMA

KULTURA, JARDUERA FISIKOA,
HEZKUNTZA ETA TEKNOLOGIA
BERRIEN ERABILPENA
SUSTATU

1.3.1 Wi-fi esparruak sortu.

1.3.2 Biasteri-Arabar Errioxa Eskualdeko Euskararen Erabilpenerako eta Sustapenerako Plana bultzatu eta bertan agertzen diren ekintzen jarraipena egin.

1.3.3 Herriko kultur eta aisialdi eskaintza zabaldu.

1.3.4 Arabar Errioxako Plan Turistiko bat egiteko izapideak burutu Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiaren proiektu bateratu baten bitartez.

1.3.5 Herriko baliabide turistikoen inbentarioa burutu eta hedatu.

1.3.6 Egungo Turismo Bulegoak eskualdeko bihurtu.

1.3.7 Udal liburutegian lanpostu bat sortu.

1.3.8 Kultur eta kirol arloko klub eta elkarten sorreran izapideak erraztu eta lagundu.

1.3.9 Urtean behin gutxienez oinarritzko informatika ikastaro bat antolatu.

1.3.10 Kanpoan goi-mailako ikasketak burutzen ari diren familientzako diru-laguntzak komunikatu.

1.3.11 Kirol ekipamenduak areagotu.

1.3.12 Erabilpen anitzeko zentroak sortu.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



2 ILDOA. GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIA ETA ANITZA SUSTATU

HELMU- GAK

- Nekazaritza sektoreko enpresa guztien %50eko partaidetza Portu produkzioarako ingurumen-praktika onetarako hezkuntza/sentsibilizazio ekintzetan.
- Turismo sektorearekin erlazionatutako jarduera ekonomikoen kopurua handitu.

2.1 PROGRAMA NEKAZARITZA JASANGARRI ETA LEHIAKORRAGOA SUSTATU

2.1.1 Nekazaritzan ustiatu daitezkeen merkatu berriak eta diru-laguntzak aztertu eta komunikatu, berrikuntza eta jasangarritasun praktika onen ezarpenean oinarritzko bihurtuz eta nekazaritza erabilpenak aniztuz.

2.1.2 Nekazaritza sektoreko enpresen fusioa sustatu.

2.2 PROGRAMA UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOA ANIZTU BERRIKUNTZARANTZ JOZ TURISMO ETA ZERBITZUEN SEKTOREETAN

2.2.1 Landa turismoari eta turismo aktiboari loturiko berrikuntza ekintzen ezarpenean lagundu.

2.2.2 Kalitatezko eta desagertzeko arriskuan dauden espezieen abeltzaintza sustatu.

2.3 PROGRAMA LANGABEZIA TASA MURRIZTU

2.3.1 Gutxietsitako taldeentzat hezkuntza planak martxan jarri eta komunikatu, berauen lan-bideratzea bilatuz.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



3 ILDOA. HERRIKO BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA ZAINDU, POPULAZIOA ASEBETEZ HIGIKORTASUNARI ETA AISIALDIARI DAGOKIONEZ

HELMU- GAK

- Errekuperatutako ingurumen hobekuntzako lurzorua azalera 5ean handitu.
- Etxebizitza hutsa %5ean murriztu.
- Garraiobide jasangarrietan egiten diren ohizko bidaien kopurua handitu.

3.1 PROGRAMA

HERRIKO ESPAZIO NATURALAK
BABESTU, ERREKUPERATU
ETA BALIOAN JARRI

3.1.1 Ibaiertzeta jatorrizko landaredia errekuatu.

3.1.2 Baso naturalen hedatzea eta errekuatzea sustatu.

3.1.3 Ingurumen hobekuntzako esparruak errekuatu eta balioan jarri.

3.1.4 Degradatutako eskualdeak errekuatu.

3.2 PROGRAMA

HIRI-INGURUNE JASANGARRIA
SORTU, POPULAZIOA
FINKATUKO DUENA ETA
ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA
HOBETUKO DUENA

3.2.1 Antolamenduaren hurrengo berrikuspenean dentsitatea, eraginkortasun energetikoa eta baliabide naturalei dagokien ingurumen alderdiak ezarri.

3.2.2 Dentsitatea ertaineko etxebizitzak sustatu, landa itxura gordez.

3.2.3 Etxebizitza hutsa murriztu, bere zaharberritzea eta kalitatezko alokairua sustatu.

3.2.4 Espazio libreen mantenimendua eta konfigurazioa hobetu.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



3.3.1 Herriko landa-eremuari balioa emateko, herrien arteko komunikazioa hobetzeko eta turismo-kirol erakarpena handitzeko, landa-bideak egokitu sare bat sortuz.

3.3 PROGRAMA

GARRAIOBIDE JASANGARRIAK SUSTATU

3.3.2 Bizikleten mailegurako esperientzia pilotu bat egin.

3.3.3 Eskualde barneko garraio zerbitzua martxan jarri.

3.3.4 Garraio publikoaren irisgarritasuna hobetzeko beharrezkoak diren izapideak burutu.

3.4 PROGRAMA

BIDE AZPIEGITURETAKO SEGURTASUNA HOBETU

3.4.1 Herriko bide-azpiegituretan segurtasuna hobetzeko aldizkako komunikazioak ezarri Arabako Foru Aldundiarekin.



*Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxo*



4 ILDOA. BALIABIDE NATURALAK BABESTU ETA MODU JASANGARRIAGO BATEAN ERABILI, ALDI BEREAN HONDAKINEN SORRERAK ERAGINDAKO INPAKTUA GUTXITUZ

HELMUGAK

- Nekazaritzan erabiltzen den ur kantitatea %5ean murriztu.
- Sareko ur galeren kontrola hobetu.
- Herriko elektrizitate kontsumo osoa %15ean murriztu.
- Birziklapena eta bilketa bereiztua %10ean handitu (bereizten ez den zatiaren murrizpena).

4.1 PROGRAMA

BALIABIDE HIDRIKOEN
KONTROLA HOBETU
ETA ERABILPEN
ERAGINKORRAGOA EGIN

4.1.1 Aldizka etxeetan erabiltzen den eta lehen sektorean erabiltzen den uraren kontsumoen azterketa egitea eskatu Urkidetzari eta murrizpenerako neurriak ezarri.

4.1.2 Baliabide hidrikoen aurrezpenerako heziketa kanpaina bat burutu.

4.1.3 Nekazal erabilpenerako ur-andel bat eraiki.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



4.2 PROGRAMA

ENERGIA KONTSUMO

ERAGINKORRAGOA SUSTATU

4.2.1 Herriko energia diagnostiko bat egin.

4.2.2 Udal instalazioetan aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko ekimenak ezarri: argiteria eta udal eraikinetan.

4.2.3 Produkzio txikiko eta sakabanatuko energia berriztagarriak lortzeko gailuak ezarri, paisaian eragin txikiagoa sortuz eta herriko landa itxura gordez.

4.2.4 Populazio nukleo guztiak gas naturalez hornitzeko aukera berraztertu, ingurune-naturapeko eragina saihestuz, batez ere babestutako eskualdeetan.

4.2.5 Inausketa hondakinen aprobetxamendu energetikorako planta baten eraikuntzaren aukera aztertu

4.2.6 Babestutako etxebizitzetan eraginkortasun energetikoa sustatu.

4.2.7 Sektore desberdinetan eraginkortasun energetikoa sustatzeko ekimen edo tresna normatibo edo fiskalei buruzko informazioa eman.

4.3 PROGRAMA

HONDAKINEN SORRERA ETA

BERE INGURUMEN INPAKTUA

MURRIZTU

4.3.1 Etxeetan, nekazaritza eta industrian hondakinak murrizteko sentsibilizazio ekintzak sustatu.

4.3.2 Biltzen diren hiriko hondakin solidoak eta ontziak kontabilizatu eta administrazioarekin kontaktuan jarri besta herriek ere gauza bera egiteko.

4.3.3 Konpostajeari buruzko kanpaina bat burutu esparru domestikoari zuzendua eta beste bat nekazaritza esparruari zuzendua.

4.3.4 Inausketa eta lorategietako hondakinen konpostaje-planta bat martxan jartzeko finantziazioa eta udalaz gaineko diru-laguntzak bilatu.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



5 ILDOA. UDALAREN ETA POPULAZIAOREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETU ETA ERAGILE SOZIOEKONOMIKO GUZTIEN PARTAIDETZA SUSTATU MOREDA ARABAKO GARAPEN JASANGARRIEAN

HELMU- GAK

- Herriko elkarte edo taldeetan, partaidetza %10ean handitu.
- Partaidetza aukerei dagokionez, populazioaren asebetetzea %10ean handitu.

5.1 PROGRAMA

UDAL INFORMAZIO ETA
KOMUNIKAZIO MEKANISMOAK
HOBETU

5.1.1 Udalaren web orri bat sortu, berriak eta jasangarritasunari buruzko informazio eguneratuarekin.

5.1.2 Populazioari informaziorako eta partaidetzarako eskuragarri dauden mekanismoei buruz informazioa eman.

5.2 PROGRAMA

MOREDA ARABAKO GARAPEN
JASANGARRIEAN ERAGILE
SOZIOEKONOMIKOEN
PARTAIDETZA SUSTATU

5.2.1 Sentsibilizaziorako eta biztanleriaren partaidetzarako ekintzen planifikazioa eta komunikazioa hobetu eta beste sektoreetara zabaldu.

5.2.2 Burutuko diren ekintzak hiruhilabetero komunikatu.

5.2.3 Burututako sentsibilizazio kanpainak ebaluatzeko sistema bat ezarri.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



6 ILDOA. UDAL ADMINISTRAZIOAREN PAPER EREDUGARRIA INDARTU ETA BERE INGURUMEN-KUDEAKETA HOBETU

HELMU-
GAK

- Udal karbono aztarna %20an murriztu.
- Udaletxetik egiten diren erosketa eta kontratazioen %50ean ingurumen-alderdiak ezarri.

6.1 PROGRAMA

UDAL ZERBITZUEN
KUDEAKETA OPTIMIZATU
JASANGARRITASUN
ALDERDIEKIN

6.1.1 Udal administrazioan jokaera eredugarria indartzeko erosketa eta kontratazio berderako estrategia bat ezarri.

6.1.2 Udalean lan egiten duten pertsonak ingurumen arloan sentsibilizatu.

6.1.3 Karbono aztarna bezalako tresnen bidez herriak klima-aldaketari egiten dion ekarpena aztertu.

6.2 PROGRAMA

UDAL ARLO DESBERDINEN
ARTEKO KOMUNIKAZIOA
HOBETU

6.2.1 Tokiko Agenda 21eko Koordinatzailearen bidez Udaleko barne-koordinazioa eta zeharkakotasuna mantendu.



Moreda Arabako Tokiko Ekintza Plana
(2011-2020). 2011ko martxoa



3. JARRAIPEN PLANA

3.1 Helburuak

Jarraipen Planak Jasangarritasunerako Tokiko Ekintza Planaren prozesua monitorizatzeko tresnak definitzea du helburu, ekintzen betetze-maila eta berauen eraginkortasuna neurtuz. Honen arabera, Ekintza Plana egoera berrietara egokitu daiteke, herriko ingurumen-testuinguru eta testuinguru sozioekonomikoen bilakaerara egokituz.

3.2 Jarraipen Planaren hedapena

Tokiko Ekintza Planaren jarraipen eta ebaluaketak funtsezko hiru pausu izango ditu, urte guztien lehen hiruhilabetea aurrera eraman behar izango direnak:

1. Tokiko Ekintza Planaren ezarpen-mailaren ebaluaketa.
2. Tokiko Jasangarritasuneko Adierazleen kalkulua.
3. Emaitzak Elkarren Artean zabaltu


Pausu hauek Udalsarea 21en Ekintza Planak ebaluatzeko jarraibide eta tresnetan oinarrituko dira. Nabarmendu behar da MUGI 21 aplikazioa, jarraipena ondo egiteko beharrezkoa den tresna.

1. Tokiko Ekintza Planaren ezarpen-mailaren ebaluaketa

Urtero beharrezkoa da Tokiko Ekintza Planaren ezarpen-prozesua ikuskatzea aurreikusitako ekintzak epe barruan betetzen ari direla ziurtatzeko, kostea aurrekontuarekin bat datorren ikusteko, planifikazioan aldaketak egitea beharrezkoa den ikusteko, baliabideak egokiak diren ikusteko,...

Horretarako, urte guztien hasieran, Tokiko Ekintza Plana osatzen duten ekintza guztien egoera birpasatuko da, hurrengo metodologia erabiliz:





2. Tokiko jasangarritasuneko adierazleen kalkulua

Jarraipen Plana Jasangarritasun Adierazleen Sistema baten oinarritzen da, hauek modu kuantitatiboan garapen jasangarriko eredu-erantz herriaren egoera eta garapena islatzen duten parametroak dira.

Bestalde, Jarraipen Planeko dibulgaziozko osagaiari dagokionez, Jasangarritasunerako Ekintza Planean ematen diren aldaketak komunikatzea dute helburu eta baita ere bere ezarpena sustatzea.

Urtero, Tokiko Agenda 21eko Adierazleen Sistemako adierazleak kalkulatu dira, Udalsarea 21ean adostutakoak.

3. Emaizak elkartrukatu

Ebaluazio Txostena bukatutakoan udal arduradun guztiak bildu egingo dira, Ekintza Planaren Jarraipen eta Ebaluaketako emaitzak elkarren artean aztertzeko. Bileran honetan prozesuan sortutako zalantzak argitu dira eta Ekintza Planean egin daitezkeen aldaketak identifikatu dira.

